

Bi aukera dituzu galdetegia betetzeko:

1

QR kode hau erabiliz
online galdetegian sartuta.



2

Galdetegia paperean bete eta udaletxean
dagoen kutxan entregatu.

Parte hartzeko saioa:

Plangintzaren estrategiak adostu eta ekintzak zehazteko,
saio irekia egingo da eragile eta herritarrekin.



Pleno artetoan



Ekainaren 11n



18:00etatik 19:30era

Animatu zaitez eta parte hartu!

Anoetan euskara sustatzeko plan estrategikoa



Azken datuen arabera, Anoetako herritarren %72,2ak daki euskaraz. Ezagutza datuak gora egin du azken 30 urtean, baina etxeko erabilera eta kaleko erabilera jaitsi egin da. Dena den, gure herrian belaunaldiz belaunaldi transmititu dugu euskara, eta etxean jaso ez duten ehunka herritarrek ere ikasi dute.

Euskaraz bizi da Anoeta, eta hala izaten jarraitzea nahi dugu. Gure bizimoduan aldaketa handiak gertatu dira urteotan, eta hurrengoetan ere gertatuko dira: harreman ereduak, teknologia berriak, biztanle mugimenduak... Aldaketa horiek guztiek zuzenean eragiten diote hizkuntzari, eta, globalizatutako mundu honetan, ezinbesteko izango zaigu euskararen aldeko hautua egitea datorzkigun erronka berrietara egokitzeke.

Erakundeok ere badugu zer egina: euskaraz egiteko aukerak zabaltzea eta bultzatzea, eta erraztasunak ematea herritar eta eragileei. Hori da Anoetako Udalaren konpromisoa. Hain justu, bide horretan sakontzeko eta aurrean dauzkagun erronkei egoki erantzuteko, plangintza estrategikoa (AROA) osatzeko asmoa du udalak, herritarrekin eta eragileekin elkarlanean. Lehen pauso gisa, honako galdetegi hau doakizu, euskarari buruzko galdera batzuekin. Azkar betetzeko galdetegia da, eta guretzat ezinbestekoa da zure iritzia jasotzea.

Euskararen zabalkunde, garapen eta normalkuntza lanetan ibili direnei esker, egungo euskaldun gehienak euskaraz hazi gara.

Jaso dugun lekukoa, gure gurasoengandik, arbasoengandik eta erroetatik datorkigu. Familia, ikasketak, lagunak, aisia, lana... alor guztietan gara eta izan gaitezke euskaldun. Baina euskararen erabilera jaitsi egin da gure kaleetan...

Orain, euskarak, gu behar gaitu. Gu gara lekuko horren eredu eta ondorengoentzako adibide.